LAZKAOKO KANPOKO IGERILEKUETAN PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ JARRITAKO MODULU EDO ETXOLAN PRODUKTUAK SALTZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATURAKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- XEDEA

Kontratu honen helburua Lazkaoko Kanpoko Igerilekuetan instalatutako kaseta-taberna moduluko produktuak saltzea da.

2.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK

Joxemiel Barandiaran kiroldegiko udako igerilekuetan ezarritako etxolan, eraldatutako eta eraldatu gabeko elikagaiak eta edari hotzak eta beroak salduko dira.

Ezin izango da alkoholdun edaririk saldu.

Salgai egon daitezkeen produktuen adibideak: kafea, txokolatea, infusioak, ura, freskagarriak, zukuak, izozkiak, gozokiak, aperitiboak, patata frijituak, fruitu lehorrak, fruta, galletak, pastelak, eta abar.

3.- ALDIA ETA ORDUTEGIAK

Zerbitzua 2023ko EKAINAREN 15etik 2023ko IRAILAREN 15era arte emango da, asteko egun guztietan, 12: 00etatik 20: 00etara.

4. ETXOLAREN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK

Salmenta Lazkaoko Udalak jarritako modulu edo etxolatik egingo da, betiere Udalaren aldez aurreko baimenarekin.

Etxolak ura eta argia baino ez ditu izango. Ez du hozkailurik izango produktuak kontserbatzeko, ezta bestelako ekipamendurik ere.

Etxolan, merkaturatzen diren produktuei aplikatu beharreko higiene- eta osasun-araudietan ezarritako baldintzak beteko dira.

Ezin izango da baimendutakoa ez den beste jarduerarik egin.

Udalaren baimena eta prezio irakurgarrien zerrendak ageriko lekuan jarri beharko dira, eskatu beharrik gabe.

Guztiz debekatuta dago edozein motatako megafonia jartzea.

Eguneko merkataritza-jarduera amaitzean, tokia eta haren inguruak garbitasun-egoera onean utzi beharko dira.

Beharrezko zerbitzuen hornidura, argia eta ura kasu, Lazkaoko Udalaren kontura izango da.

– Energia elektrikoa edo beste edozein motatako energia hornitzeko kableak babestuta egon beharko dira, erorketak saihesteko.

5. SALMENTA EGITEKO BALDINTZAK

a) Ekonomia-jardueren gaineko zergari dagokion epigrafean alta emanda egotea edo, salbuetsita egonez gero, zergapekoen erroldan alta emanda egotea.

b) Merkataria Gizarte Segurantzaren araubidean alta emanda egotea eta kuotak ordainduta izatea. Baldintza hori bete beharko dute beren ardurapeko langileek.

c) Hirugarren herrialdeetako zerbitzu-emaileek egiaztatu beharko dute betetzen dituztela bizileku- eta lan-baimenen arloan indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak.

d) Udal honekin zordun ez izatea. Baldintza hau ofizioz egiaztatuko du Lazkaoko Udalak aurkeztutako eskabideak baloratzeko unean. Eskaera baloratzeko unean baldintza hori betetzen ez duen eskaera oro ezetsitzat joko da.

e) Erantzukizun zibileko asegurua, indarrean dagoen eta egunean dagoen merkataritza-jardueraren arriskuak estaltzen dituena.

f) Araudi espezifikoetan ezarritako baldintza higieniko-sanitarioak edo bestelakoak betetzea.

g) Debekatuta dago baimenik ez duen pertsona lanpostuan egotea.

h) Jendeari zerbitzatzeko edalontziak, platerak eta mahai-tresnak erabilera bakarrekoak izango dira (erabili eta botatzekoak).